

HITZARMENA, LEHENDAKARITZAKO ETA GOBERNU IREKIKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN, TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA DESPOPULAZIOAREN ZUZENDARITZA NAGUSIAREN (BIAK NAFARROAKO GOBERNUKOAK) ETA NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOAREN ARTEKOA, GOBERNU IREKIAREN ARLOAN LAKINDETZAN ARITZEKO.

Iruñean, 2020ko uztailaren 3an

B I L D U R I K

Alde batetik, Joseba Asiain Albisu jauna, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusia.

Beste alde batetik, Jesús María Rodríguez Gómez jauna, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuko Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusia.

Eta bestetik, Juan Carlos Castillo jauna, adin nagusikoa, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko (hemendik aurrera, NUKF) lehendakaria.

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA. Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiari esleitutako eginkizunak dira Gobernu Irekia bultzatu eta koordinatzea eta Nafarroako toki entitateekin elkarlanean Gobernu Irekiko politikak garatu eta hedatzea. Hala xedatzen du 8. artikuluan urriaren 30eko 259/2019 Foru

Dekretuak, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko
Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duenak.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari toki administrazioaren arloko eskudantziak dagozkio, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 263/2019 Foru Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eskudantzia hauek dagozkio, haren estatutuetan ezarritakoaren arabera:

- a) Toki entitateen autonomia babestu eta sustatzea.
- b) Erakunde politiko eta administratiboan aurrean toki entitateen eta kolektibitateen interesen ordezkari izatea.
- c) Toki entitateen bizitzan interesa duten afera eta arazoak ezagutzeko ikerketak sustatu eta burutzea.
- d) Nafarroako biztanleei toki entitateak ezagutzera eman eta haien parte-hartzea sustatzea.
- e) Toki entitateek eskatu edo delegatzen dizkioten zerbitzuak eman eta kudeaketak burutzea.
- f) Toki entitateen esparruan Europaren aldeko izpiritua garatu eta sendotzea.

BIGARRENA. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak eta Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legeak —oraintsukoak biak ere— bultzada eman diote gobernu irekiari, eskubide eta betebeharrak berriak sortu dituzte, eta tresna berriak jasotzen dituzte, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio guztien jardunbidea aldatzea eragiten dutenak.

Arestian aipatutako 5/2018 Foru Legearen 4.a) artikulua honela definitzen du gobernu irekia: "Funtzionatzeko modu bat da, herritarrekin etengabeko elkarrizketa izateko gai dena, haiek esaten eta eskatzen dutena entzuteko; bere erabakiak herritarren beharretan eta hobespenetan zentratu hartzen dituen; herritarren parte-hartzea eta elkarlana errazten dituen bere politikak zehazteko, zerbitzu publikoak sortzeko eta eginkizunak betetzeko; informazioa ematen duena eta erabakitakoaren eta egindakoaren berri gardentasunez ematen duena; kalitaterako eta etengabeko hobekuntzarako irizpideen menpe jartzen dena; eta prest dagoena egindakoengatik kontuak emateko eta erantzukizuna bere gain hartzeko haren zerbitzuak jasotzen dituzten herritarren aurrean."

Gobernu Irekiak elkar lotzen ditu parte-hartzea, kontu ematea eta ardurak nork bere gain hartzea, eta gardentasuna.

12/2019 Foru Legearen 60.e) artikulua dioenez, Nafarroako Gobernuak, sentsibilizazio neurrien barnean, lankidetzaren hitzarmenak ezarriko ditu, herritarrek toki entitateetan duten parte-hartzea sustatzeko.

HIRUGARRENA. Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa azkenaldian ere lankidetzan arituak dira arlo honetan. Guztiengan eragina duen arloa da, gorago azaldu denez, eta beharrezkoa da sinergiak bilatu eta batera lan egitea.

Hala, 2016ko maiatzaren 20an Jardunbide Egokien Protokoloa sinatu zuten Nafarroako Gobernuko Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren Zuzendaritza Nagusiak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF), herritarren parte-hartzearen eta gardentasunaren alorrean toki entitateei aholku eta babesa emateko jarduketaren garapenerako.

Honako akordio honetako alderdiek beharrezkotzat jotzen dute elkarlan horretan jarraitzea gai honen kudeaketan eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia handiagoak lortzeko, elkarrekin partekatuz informazioa, jardunbide egokiak, prestakuntza eta aholkuak, hori guztia Nafarroako herritarren onerako izan behar baita.

Ildo horretan gogora ekarri behar da Nafarroako toki entitateek esperientzia luzea dutela toki eremuko parte-hartze prozesuetan, esaterako aurrekontuetan parte hartzeko prozesuetan, beste askoren artean; eta Nafarroako Gobernuak ere badu esperientzia gardentasunaren, parte-hartzearen, prestakuntzaren eta sustapenaren eremuetan.

LAUGARRENA. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 83.d) artikulua hitzarmenaren formula jasotzen du administrazioen arteko lankidetzarako bide gisa.

Horrenbestez,

ERABAKI DUTE

1.- LANKIDETZA HITZARMENAREN XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetzaren ezartzea gobernu irekiaren arloko jarduketak batera sustatzeko. Zehazki, arlo hauek landuko dituzte:

- a) Elkarlanerako eta esperientzia trukerako formulak sustatzea.
- b) Gardentasunari, datuak ireki eta berrerabiltzeari, herritarren parte-hartzeari eta kontu emateari buruzko berariazko jardunaldi eta mintegiak egitea elkarlanean.
- c) Kargu publikodunentzat eta langile publikoentzat prestakuntza plan bat idatzi eta garatzea elkarlanean: beharrak identifikatzea; prestakuntza plana taxutu eta garatzea.
- d) Guztiek erabiltzeko baliabide erabilgarrien bankua egitea, toki eremuan herritarren parte-hartzea sustatzeko.
- e) Interes bereziko proiektuetan esperientziak eta ekinbideak garatzeko laguntza ematea, aholkularitza eta beste zerbitzu tekniko batzuk eskainiz.

2.- ALDERDIEN KONPROMISOAK.

Nafarroako Gobernuak, Lehendakarietzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiaren eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, konpromisoa hartzen du NUKFrekin lankidetzan aritzeko, neurri hauek direla medio:

- a) Gobernu irekiaren arloko aholkularitza eta laguntza teknikoa.
- b) Toki entitateekin lankidetzan aritzea arlo honetako esperientzia pilotuak egiten.
- c) Toki entitateei laguntza ematea haien prozesuak eta estrategiak diseinatzerakoan gobernu irekiaren esparruan.
- d) Lankidetzan aritzea herritarrak sentikortzeko jarduketak garatzen eta prestakuntza eta ikerketarako jarduketak antolatzen.
- e) Toki entitateekin lankidetzan aritzea haiek parte-hartze prozesuak abian jartzen dituztenean.
- f) Lankidetzan aritzea toki eremuko parte-hartze batzordeak abian jartzen eta birformulatzen, hala badagokie, haiek hobetzeko, ordezkarien aniztasunari eta erabakitzeko ahalmenari dagokienez.
- g) Beste erakunde batzuek toki entitateei buruz antolatutako prestakuntza- eta eztabaida-foroak babestea, horietan parte hartuz.

NUKFK konpromisoa hartzen du Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean jarduteko honako jarduketa hauen garapenean, neurri hauek direla medio:

- a) Gobernu irekiarekin zerikusia duten gaiak lantzeko prestakuntza eta zabalkunde ekintzak, mintegiak eta jardunaldiak antolatzea.
- b) Lankidetzan hitzarmen honen barnean sustatzen diren jardueren berri ematea toki entitateei, bere komunikazio bideak erabiliz.
- c) Herritarren parte-hartzearekin eta gardentasunarekin lotutako gaiak argitaratzea.
- d) Arlo honetan toki entitateen artean era daitezkeen talde edo foroen sorrera eta jarduna sustatzea.

Informazioa kudeatzeko eta elkarri helarazteko gune digital baten sorrera sustatuko du Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiak.

Alderdi guztiek konpromisoa hartzen dute hitzarmen hau, beraren aldaketak eta gehigarriak Nafarroako Gobernuaren eta NUKFren gardentasun atarian argitara daitezen.

3.- ONDORIO EKONOMIKOAK.

Hitzarmen hau sinatzeak ez die inolako konpromiso ekonomikorik sortzen alderdi sinatzaileei.

4.- LEHENGO JARDUKETEN GAINEKO ONDORIOAK.

2016ko maiatzaren 20an Jardunbide Egokien Protokoloa sinatu zuten Nafarroako Gobernu Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Gobernu Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF), herritarren parte-hartzearen eta gardentasunaren alorrean toki entitateei aholku eta babesa emateko jarduketaren garapenerako. Bada, lankidetzaren hitzarmen hau sinatuta protokolo hori indarririk gabe uzten da.

5.- KOORDINAZIO ETA JARRAIPIEN BATZORDE TEKNIKOA.

Hitzarmen hau betetzeko, eta eratorriko diren jarduketa zehatzak, goian deskribatuak, erabakitzeko, Koordinazio eta Jarraipen Batzorde Teknikoa sortuko da, eta kide hauek izanen ditu:

Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiaren ordezkariak:

- Itziar Ayerdi Fernández de Barrena andrea, Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuko zuzendaria.
- Ana Etxaleku Castaño andrea, Herritarren Partaidetzarako Ataleko burua.
- Juan Carlos Lázaro López jauna, Gardentasunaren Ataleko burua.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren ordezkariak:

- Ana María Rodríguez Hidalgo andrea, Toki Entitateentzako Aholkularitza Juridikorako eta Lankidetzarako Zerbitzuko zuzendaria.
- Alejandro Alonso Zapata jauna, Arauen Garapenerako eta Toki Antolamendurako Ataleko burua.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ordezkariak:

- Juan Carlos Castillo jauna. NUKFko lehendakaria.
- Berta Enrique andrea. NUKFko idazkari nagusia.
- Juan Jesús Echaide Baigorri jauna. NUKFko teknikaria.

Eginkizun hauek izanen ditu Batzorde Teknikoak:

- Entitate parte-hartzaileen lankidetzaren antolatzea.
- Jarduketan urteko egitaraua onestea.
- Programatutako ekintzak nola burutzen ari diren aldiaren jarraitzea.
- Garatutako ekintzen emaitzak ebaluatzea.
- Urteko emaitzak berrikustea eta hurrengo aldirako helburuak ezartzea.
- Lankidetzarako proposamen berriak egitea.

Batzordeak bilera egingen du urtean behin, gutxienez, eta, gainera, alderdiren baten ordezkariak hala eskatzen dutenean. Bileren aktak egingen dira, landu diren gaiak eta hartu diren erabakiak jasorik uzteko.

6.- IRAUPENA.

Hitzarmen honek lau urteko iraupena izanen du, sinatzen den egunetik hasita.

7.- HITZARMENAREN ALDAKETEN ETA GEHIGARRIEN ARAUBIDEA.

Alderdiek hitzarmen hau aldatzea adosten ahalko dute, haietako edozeinek hala eskatzen badu idatziz.

Urtero lan programa ezarriko da, eta hitzarmen honen gehigarri gisa ageriko da.

8.- HUTSALTZEA

Seigarren apartatuan aipatzen den dataren aurretik, alderdiek hitzarmena hutsaltzen ahalko dute, baldin eta alderdi batek modu sinesgarrian hitzarmena salatzen badu hilabete lehenago.

9.- GATAZKAK


Alderdi esku-hartzaileek konpromisoa hartzen dute bien artean irtenbideak bilatzeko, baldin desadostasunak sortzen badira hitzarmen honen aplikazioan.

Eta lankidetzaz hitzarmen honen edukiarekin ados daudela erakusteko, alderdi esku-hartzaileek hitzarmenaren hiru ale sinatu dituzte, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.

Sin.

ASIAIN
ALBISU
JOSEB
A

Sinadura digitala: ASIAIN
ALBISU JOSEBA
08:38:45 +02'00'




Joseba Asiain Albisu

Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko
zuzendari nagusia

Sin.

RODRIGUEZ
GOMEZ JESUS
MARIA -

Sinadura
digitala:
RODRIGUEZ GOMEZ
JESUS MARIA -
Data: 2020.07.03
10:22:40 +02'00'



Jesús María Rodríguez Gómez

Toki Administrazioaren eta
Despopulazioaren zuzendari nagusia

Sin.

CASTILLO
EZPELETA
JUAN CARLOS

Sinadura digitala:
CASTILLO
EZPELETA JUAN
CARLOS
Data: 2020.07.03
14:09:18 +02'00'



Juan Carlos Castillo Ezpeleta

Nafarroako Udal eta Kontzejuen
Federazioko lehendakaria